



SANTA BARBARA PLAZAN EGINGO DEN 2025EKO ANDRE MARIA ZURIAREN JAIETAKO AZOKAREN OINARRIAK

I. ANDRE MARIA ZURIAREN JAIETAKO AZOKAREN EZAUGARRIAK

Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaiak direla eta izaten den azokan, gehienez, **40 saltoki jarriko dira**, **Santa Barbara Plazan**, **uztailaren 24tik abuztuaren 9tik 10erako goizaldera arte**.

Aurten azoka 2025eko uztailaren 24ko 12:00etatik, **abuztuaren 9tik 10erako goizaldeko 01:00etara** arte egingo da.

40 saltoki horietatik bi gizarteratze enpresentzat gordeko dira. Enpresa horiek deialdi honetan sartutako salmentarako betekizunak eta baldintzak bete beharko dituzte.

Gasteizko udalak gehienezko saltoki kopurua murrizteko eskubidea izango du, hainbat arrazoi tarteko, esaterako unean bakoitzean indarrean dagoen araudi espezifikoak

Artisau-produktuak nagusiki jarri ahalko dira salgai. Azoka honetan, artisau-produktutzat joko dira haien ekoizpen edo eraldaketarako pertsonak zuzenean esku-hartzea ezinbesteko dutenak amaierako produktua lortuko bada, gauza bera zerbitzuekin; eta pertsonen ezinbesteko esku-hartze horrek industria produktuetatik bereizten ditu. Industria produktutzat joko dira, berriz, haien osotasunean baliabide mekanikoak baliatuz edo serie handitan ekoiztutakoak.

Saltokiak modulu-sistemako etxola itxi indibidualak izango dira, kanpoaldean jartzekoak. Pasabide estali argiduna izango dute. Etxolek 3 metro luze eta 2 zabal izango dituzte, eta mostadoreak jartzeko aukera.

Gaueko zaintza-zerbitzua ere izango dute.

II. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskaerak **apirilaren 1etik 15era arte (biak barne)** aurkeztu behar dira, leku hauetakoren batean:

- Gasteizko Udalaren bulego teknikoak: Teodoro Doublang Margolariaren kalea, 25, 01008.
- Herritarrei laguntzeko bulegoak.



- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>
- Baita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

Telefono bidezko argibideak: 010 eta 945161100

Eskaera postaz postaz bidaltzen bada Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— posta ziurtatuz egin beharko da. Bidalketa Postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, eta eskabidea egin duela jakinarazi beharko dio Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari, posta elektronikoz (comercio@vitoria-gasteiz.org) eta, betiere, eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehen. Jakinarazpenak balioa izan dezan, jasota geratu beharko da mezua jaso dela, baita komunikazioaren data eta eduki osoa ere, eta **era frogagarrian identifikatu** beharko dira igorlea eta hartzailea. Bestela, eskaera ezetsi ahal izango da.

Oro har, ez da salmenta-eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo. Bakarrik deialdi honetan ezarritako epe ofiziala amaitzean saltokien kopurua baino eskabide gutxiago jaso badira onartu ahal izango da gerokotasun epea gainditu ostean aurkeztutako eskabiderik. Halakorik gertatuz gero, saltokien kopurua betetzeko behar beste eskabide hartuko da aintzat, betiere eskabideak Udal erregistroan sartu diren eskabide dataren erregistro-hurrenkerari jarraituko.

Lanpostu-eskaera aurkezteak deialdiko oinarriak onartzea ekarriko du.

III. BETEBEHARRAK, AGIRIAK, BERMEA ETA PROZEDURA

A. Eskaeraren betebeharrak eta dokumentazioa

Agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:

- Nahitaezko agiriak:

1. Eskabide-orria, eredu ofizialean. Eskatzaileak izenpetutako aitortpena, non Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzako eta deialdi honetako betebeharrak betetzen dituela adieraziko baitu. Aitortpena oso-osoarik bete beharko da; eskatutako datu guztiak adierazi ezean, eskabidea ezetsi egin ahalko da.



Azokan parte hartu nahi duten interesdunek izenpetutako aitorpena behar bezala beteta aurkeztu beharko dute nahitaez, bermetik itzultzea dagokien zatia **zein kontu korrontetan** sartu behar den adierazita; izan ere, bermearekin lotuta egin beharreko ordainketa oro kontu-zenbaki horren bidez egingo da.

2. Titularraren eta titularkidearen nortasun-agiriaren fotokopiak, edo Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako lan eta egoitza baimenenak.
 3. Pertsona juridikoen kasuan, eratze-eskrituren fotokopia, eskatzailearen ordezkatzeko-ahalmena eta identifikazio fiskalerako txartelaren fotokopia.
 4. Jabearen eta jabeakidearen tamainako argazki bana, agiri neurrikoak.
 5. Merkaturatuko diren produktuen azalpena eta produktuen **argazkiak**, baita balorazio-atalean aukeratako dokumentuen zerrenda ere.
- Eskabideak balioesteko eta lehenesteko agiriak edukiaren indize batean behar bezala jasota egon beharko duena.
1. **Eskatzailea Eskulangintza Enpresen Erregistro ofizialean izena** emanda dagoela egiaztatzen duen agiri ofizial eguneratua.
 2. Azken hiru urteetan eskatzaileak –saltokiko titular gisa– **3 eguneko iraupena** edo hortik gorakoa duten zenbat eskulangintza azokatan parte hartu duen adierazten duen egiaztagiria ofiziala, antolatzaileek emana. **Azoka amaitu ondorenkoa izan behar du egiaztagiria, eta bertan egun kopurua, edo hala badagokio, denbora tarte adierazi beharko da. Ez dira kontuan hartuko fakturak edo lizentziak.**
 3. Azken hiru urteetan, Europar Batasunean, titularrak marketinari, bezeroari arreta eskaintzeari, saltokiaren irudiari edo eskulangintza ekoizpenari loturiko prestakuntza ikastaroetan parte hartu izanari eta aprobetxamenduari buruzko egiaztagiria ofiziala. Ikastaroaren ordu-kopurua agertu behar da egiaztagirian.
 4. Titularrak euskaraz badakiela egiaztatzen duen titulu edo egiaztagiria ofiziala. Ondorio horretarako titulu edo egiaztagiria ofizial dira Hizkuntzetarako Europako



Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatu daitezkeenak, ez beste. Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan daude jasota horiek eta Dekretua 2010eko azaroaren 15eko EHAAan –219 zk.– argitaratu zen.

5. % 33tik gorako desgaitasun- edo minusbaliotasun-ziurtagiria, organo ofizial eskudunak emana.

6. **Merkaturatuko diren produktuen oroitidazki deskriptiboa, egiteko erabili diren material edo lehengaiak, eta produktuak egiteko prozedura.**

Aurkeztutako dokumentuen zerrendan aurreko dokumentazioa behar bezala jasota ez badago, ez da kontuan hartuko balioespenean.

Dokumentazio hori aurrez aurre herritarren arretarako bulegoetan aurkeztea erabakitzen bada:

- Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea. Merkaturatuko diren produktuen oroitidazki deskriptiboa, artisautza-azoketan parte hartu izana egiaztatzea eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahalko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezteari buruzko erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio eskabideari, udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du.
- Dokumentazioa paperean aurkeztea. Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A-4 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzelana errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistematik erabili gabe. Pertsona fisikoek bakarrik aurkeztu ahalko dituzte proiektuak paperean, erregistratzeko.

2022-2023-2024ko Andre Maria Zuriaren jaietako azokan edo 2022, 2023 eta 2024ko Eguberrietako Azokan parte hartzeko eskabidearekin batera balioetsi eta lehenesteko 2., 3. eta 4. puntuetan jasotako agiriak aurkeztu zituzten pertsonak ez dituzte berrito aurkeztu behar, agiriak eguneratzeko izan ezean.

Eskabide batean baino gehiagotan ageri diren pertsonak –titular nahiz titularkide gisa– bazter utziko dira, besterik gabe.

Erakutsitako salgaiak bat etorri behar du eskabidean aurkeztutakoarekin. Horrela ez baldin bada, baimena baliogabetu ahal izango da, bai eta saltokia itxi ere.



Eskatzaileek titularkide bakar bat jarri ahal dute saltokia eskatzean. Nahitaez adierazi beharko du eskabidea aurkeztean titularkiderik izango duen ala ez, eta haren izen-deiturak eta NAN zenbakia jakinarazi.

Helbide bakoitzeko bi eskaera onartuko dira gehienez

B. Eskabidea formalizatzeko bermea

Eskabidea jaso ondoren, **300 euroko ordainagiria** jaulkiko zaie interesdunei **behin-behineko berme** gisa, eta **maiatzaren 5era arte (biak barne)** ordaindu beharko dute. Ordaintzeko leku eta modu hauek baliatu ahalko dituzte:

- Kutxabank, Laboral Kutxa, Bankoa, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santanderreko edozein bulegotan, beraiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan, finantza-erakundeekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martineko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, beheko solairua), finantza-erakunderen batekin hitzartutako kreditu-txartela baliatuz. Ordutegia: 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Telefonoak: 010 eta 945 16 11 00.
- Internet bidez: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>

Prozeduran esleipendun ez direnei itzuli egingo zaizkie behin-behineko bermeak, itzarotzerrendako lehen bost pertsoneri izan ezik. Kasu hauetan, behin betiko esleipenak egin ondoren itzuliko zaie.

Esleipendun izanez gero, oinarriko e) ataleko dokumentazioa osoa alde aurretik aurkeztuta, berme hori behin betiko bermetzat joko da, sor daitezkeen aparteko gastuei eta oinarri hauetan jasotako betebeharrak bete ez izanari erantzuteko.

Behin betiko bermea aparteko gasturik izan ez dela eta bete beharrak ondo bete dituztela egiaztatu ondoren itzuliko da.

C. Esleipen-prozedura

Honakoak hartuko dira aintzak saltokiak esleitzeko orduan (eskabidearen titularrari dagokionez):



I.Prozedura orokorra

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
<p>1. Eskatzaileak eskularen salmenta ibiltarian duen profesionaltasuna: azken 3 urteetan 3 eguneko iraupena edo hortik gorakoa duen eskulangintza azoketan parte hartu izana, saltoki bateko titular gisa, 0,25 puntu eskulangintza azokako. Gasteizko Udalak sustatutako eskulangintza azoketan parte hartu izana Udalak ofizioz egiaztatu eta balioetsiko du.</p>	Puntu 1 gehienez
<p>2. Eskulangintza enpresen erregistro ofizialean izena emanda egotea, eskatzaileak azokan merkaturatuko duen produktuetako edozeini dagokion kategorian.</p>	3 puntu gehienez
<p>3. Formakuntza, Europar Batasunean, azken hiru urteetan, marketinarekin, bezeroari arreta eskaintzarekin, saltokiaren irudiarekin edo eskulangintza ekoizpenarekin loturiko prestakuntza ikastaroetan parte hartu izana.</p>	Puntu 1 gehienez
15 prestakuntza-ordu	0,25 puntu
16-30 prestakuntza ordu	0,5 puntu
31-45 prestakuntza ordu	0,75 puntu
46-60 prestakuntza ordu	1 puntu
<p>4. Bezeroari arreta euskaraz egiteko aukera</p>	Puntu 1 gehienez
<p>5. Merkaturatzen diren produktuen eta prestatze-prozesuaren oroitidazki deskriptiboaren kalitatea (produktuen ekoizpena, materialak edo lehengaiak eskuratzea, erabilitako lanabesak)</p>	5 puntu gehienez
<p>Muntatu nahi den saltokiaren itxuraren proiektua eta saltokiaren kalitatea (irudiaren argazkiak eta horren kalitatea)</p>	1,5 puntu gehienez
<p>Egiteko prozesuaren deskribapen XEHATUA, argazkiak barne (zenbat eta deskribapen hobea orduan eta puntuazio handiagoa)</p>	1,5 puntu gehienez
<p>Produktuen originaltasun eta aniztasun proposamena (askotariko materialak, eskusibotasuna edo/eta eskatzaileak puntu bereizgarri gisa adierazitako beste edozein)</p>	1,5 puntu gehienez
<p>Elaborazio, dekorazio edo/eta packaging materialen aprobetxamendua, hondakinen murrizketa eta/edo eskatzaileak ekonomia zirkularraren kontzeptuen barruan adierazten duen beste edozein</p>	0,5 puntu gehienez
<p>6. Eskabidearen titularrak %33ko edo hortik gorako elbarritasun edo ezintasunen bat izatea</p>	0,5 puntu gehienez



Saltoki baino eskabide gehiago balego, adierazitako irizpideen arabera lortutako puntuak hartuko dira kontuan lehenik. Ondoren, aurreko irizpideekin sortu ahal izan diren berdinketak ebazteko, merkataritzako sortaren irizpideari jarraituko zaio. Irizpide hori erabakigarria ez bada, aurreko irizpideak aintzat harturik puntu gehien lortu dutelarik lizentziarik lortu ez duten eskabideei esleituko zaizkie saltokiak, zozketaren bidez.

II. Gizarteratze enpresentzako prozedura

Gizarteratze enpresen eskaerak zozketa prozeduraren arabera lehenetsiko dira.

Bi etxolak betetzeko nahikoa eskatzaile izango ez balira, etxola bi horiek gainerako eskatzaileen artean banatuko dira.

III. Saltokiak esleitzeko prozedura

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusitako saltokiak esleitzea.

Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, Merkataritza Zerbitzuko udal-teknikariek txosten arrazoitu bat egingo dute, eta bertan zehaztuko egindako balioespenaren emaitza eta horien arteko lehentasuna. Azokako saltokiak Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez esleituko dira, Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko Eskumenak Eskuordetzeko Erabakiaren haritik.

Saltokiak esleitzeko ebazpenak agortu egingo du administrazio-bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldeztatik aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berriaz edo ustez ebatzi arte—. Ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.



D. Saltokien kokapena, itzarote-zerrenda eta argitaratzea

Esleipendunen eta erreserban geratutakoen zerrendak 010 telefonoan eta udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org) egongo dira eskuragarri, **ekainaren 3tik aurrera**.

Halaber, esleipendunen saltokien kokapen zehatza zehazteko egingo den zozketaren emaitza webgune horretan argitaratuko da **ekainaren 5ean**.

E. Esleipendunek aurkeztu beharreko dokumentazioa

Esleipendunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, **ekainaren 5etik 18ra arte (biak barne)**:

- Titularrari eta titularkideei (direla bazkide, direla soldatapeko) dagozkien Gizarte Segurantzako azken ordainagirien fotokopiak. Halakorik ez izatekotan, Gizarte Segurantzaren jarduera hasi aurreko dagokion erregimenean emandako altaren fotokopia.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza eta ordainagiria.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergako salmenta ibiltariaren epigrafeko alta eta bajen ziurtagiria. (Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du honako dokumentazioa).
- Azokan parte hartzetik sortutako gastuen eta bermearen ordainagiriak ordaindu izanaren egiaztatzea. (Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du honako dokumentazioa).
- Artisau kosmetika eta higiene produktuen kasuan, Etiketatze-lagin bat aurkeztea. (Kontuan hartu behar da kosmetika produktuei buruzko 85/2018 Errege Dekretuan etiketei buruzko araudian xedatutakoa betetzen dutenak saldu ahal izango direla bakarrik).

Agiriak modu hauetakoren batean aurkeztu ahal izango dira:

- Vitoria-Gasteizko Udalaren bulego teknikoak, Pintor Doublang kalea 25, 01008.
- Herritarren Arretarako Bulegoak.
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa [https:// sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org](https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org)
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera legez aurreikusitako gainerako moduetan.



Interesdunak eskabideari uko egiten badio edo uko egiten badio, lanpostu hutsak itxaroteko zerrendan agertzen diren pertsoneri esleituko zaizkie, bertan ezarritako ordenaren arabera.

IV. ORDAINAGIRIAK ORDAINTZEAK

7.1 zenbakiko ordenantza fiskalaren 6. epigrafean xedatutakoaren arabera, jaiak edo ospakizun bereziak direla-eta salmenta-postuak instalatzeko, Gasteizko Udalak bi ordainagiri emango dizkie esleipendunei, partaidetza horrek eragindako gastuei aurre egiteko. Ordainagiriak hauek, alegia:

- **192,58 euroko** ordainagiria, 2025ean eskulangintza azoka bitartez bide publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasari dagokiona.
- Feriari dagozkion **900 euroko** ordainagiria, gastu hauetarako: muntatze eta desmuntatze lanak, etxolak, standak, errotulazioa, zainketa eta instalazio elektrikoa.

V. LIZENTZIAK JASOTZEKO TOKIA ETA EPEA

III. atalean adierazitako agiriak aurretiaz aurkeztu direlarik Udaletxeko bulego teknikoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25— jaso beharko dira lizentziak, uztailaren 17tik 24ra bitartean —ordutegia: 8:30etik 14:00etara—.

Titularrak edo titularkideak jaso beharko dute, nortasun agiria aurkeztuta; Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, atzeritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen lan eta egoitza baimenaren fotokopia aurkeztu beharko dute. Era berean, hirugarren bati ahalmena eman ahal izango zaio baimena jaso ahal izateko, idatziz baimentzen badu eta NANaren edo horren baliokidea (Europar Batasunaz kanpokoen kasuan) den fotokopia erakutsita.

VI. SALTOKIETAKO LANGILEAK. BETEKIZUNAK

1. Saltzeko lizentzia emango bazaio, Gasteizko Udalean ordaindu beharrekoak ordainduta eduki beharko ditu, aurretiaz eta nahitaez, eskabidea egiten duen pertsonak. Ofizioz begiratuko da dena delakoak betekizun hori betetzen duen.
2. Eskatzaileek titularkide bakar bat jarri ahal dute saltokia eskatzean. Nahitaez adierazi beharko du eskabidea aurkeztean titularkiderik izateko asmoa duen ala ez.



3. Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea. Baldintza hau galdagarria izango da bereren kontu pertsonal langilearentzat. Langileen datuak berariaz adierazi beharko dira salmenta ibiltarirako lizentzia eskatzen denean. Nolanahi ere, ezingo dira bi titularkide baino gehiago izan lizentzia bakoitzeko, eta saltokiak esleitzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak oro bete beharko dituzte. Baldintza hori ofizioz egiaztatuko da.
4. Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe egokietan alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea.
5. Hirugarren herrialdeetako zerbitzu-emaileak, bizileku- eta lan-baimenen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute
6. Ekonomia jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea eta ordainduta egotea.
7. Lizentzia pertsonala da, eta titularra edo titularkidea arduratuko dira bezeroekin zuzenean aritzeaz (ez da beharrezko saltokian biak batera egotea). Biek beren gain hartzen dute, saltokia gobernatzeko, haren barruan egongo diren bi pertsona bakarrak izateko ardura. Horrela ez baldin bada gertatzen, baimena baliogabetu ahal izango da, bai eta saltokia itxi ere.
8. Higiene eta osasun edo beste izaera bateko arautze espezifikoek ezarritako baldintzak betetzea. Artisan kosmetika eta higiene produktuen kasuan, kosmetika produktuei buruzko 85/2018 Errege Dekretuan etiketei buruzko araudian xedatutakoa betetzen dutenak saldu ahal izango dira bakarrik.
9. Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debekatua dago haiek eskualdatzea.
10. Esleipendunek jendeak oro har zein ikuskatzaileek erraz ikusteko moduan jarri beharko dituzte honako agiriak:
 - Andre Maria Zuriaren jaietako azokan salmenta ibiltarian aritzeko udal baimena
 - Jarduerak eragin ditzakeen erreklamazioak jasotzeko helbidea.
 - Erreklamazio-orriak, indarrean dagoen ereduaren.



VII. SALTOKIAK JARTZEKO BALDINTZAK

1. Saltokiak Santa Barbara plazan jarriko dira, ez beste inon. Erantsitako planoaren arabera esleitutako kokalekuan.
2. Bide publikoa okupatzeko baimenek esleitutako saltokirako eta **uztailaren 24tik abuztuaren 9ra (biak barne)** izango dute balioa; hala ere, titularrak **uztailaren 23ko 10:00etatik aurrera** sartu ahalko dira etxolan muntatzeko.
3. Uztailaren 24ko 12:00etan irekiko da azoka, eta abuztuaren 10eko 01:00etan itxiko.
4. Azokaren ordutegia:
 - a. Uztailaren 24tik abuztuaren 3ra bitartean: 11:00etatik 14:30etara eta 17:00etatik 22:00etara.
 - b. Abuztuaren 4tik 9ra bitartean: 11:00etatik 14:30etara eta 17:00etatik 00:00etara.Alabaina bi salbuespen hartu behar dira kontuan: uztailaren 24an goizeko 12:00etan irekiko da, eta abuztuaren 9an gaueko 01:00etan itxiko da.
5. **Abuztuaren 10eko 14:00ak** baino lehen utzi beharko dituzte hutsik saltokiak esleipendunek.
6. Debekatuta egongo da industrialki egindako produktuak saltzea, hala nola, imitaziozko bitxiak, ordulariak, elektronika-gaiak, elikagaiak, edozein motatako edariak, liburuak, diskoak, oinetakoak eta beste.
7. Berariaz debekatzen da piercingik, tatuatze iraunkorrik eta antzekorik egitea.
8. Kosmetika eta higiene arloko artisauro produktuak saltzeko indarrean dagoen araudia bete beharko da ezinbestean.
9. **Berariaz debekatzen da:**
 - A. Ibilgailurik sartu baimenik gabeko lekuetan. Izan ere, zamaketa-lanetarako izan ezik, ezin izango da ibilgailurik sartu baimendutako eremuan.
 - B. Saltokiek megafonia indibiduala jartzea.
 - C. Salmentarako egokitutako leku itxian erretzea.
 - D. Esleitutako saltokiaren kanpoko egituratik zintzilik edo saltokiaren azaleratik kanpo erakusgaiak jartzea, bai eta esleipendunaren



merkataritzako izena adierazten duen errotulua ikustea galarazten duten produktuak ipintzea. Esleipendunak debekua errespetatzen ez badu, udaltzainek kendu egin ahalko dituzte salgai horiek bertatik.

10. Saltokiko giltzak azokan bertan emango dizkio saltokien esleipena duen enpresak baimenaren titular edo titularkideari -horretarako titular edo titularkideak nortasun-agiria erakutsi beharko du, edo Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako lan eta egoitza baimenen fotokopiak. Giltzak uztailaren 23ko 10:00etatik aurrera hartu ahalko dira.
11. Ezin izango da inolako bizitegirik jarri etxolatik kanpo ezta hari erantsia ere, halaber, ezin izango dira janariak prestatu, arropak garbitu eta abar.
12. Postu bakoitzaren argindar potentzia gehienez 700 watterkoa izango da, eta instalazio osoarena 50 kilowatterkoa baino txikiagoa. Debekatuta dago instalazio elektrikorik etxolaren paralelo. Ez da inolaz ere potentzia handitzerik onartuko.
13. Segurtasun arrazoiak direla eta, beharrezkoa da saltokietako hornitzaileari su-itxalgailu bat etxola barnean jartzeko baimentzea.

VIII. ZEHAPEN ARAUBIDEA

Dagozkien zaintza- eta kontrol-eginkizunak betez, udal-agintariak produktuak, jarduerak eta instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte, eta beharrezkoa den informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango diete saltzaileei, oinarri hauetako xedapenak, Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzaren ezarritakoak (ALHAO, 143. zk., 2016-12-21ekoa) eta jarduerari eta salgaiei aplikatu beharreko gainerako lege-araudian ezarritakoak behar bezala betetzen direla bermatzeko. Gasteizko Udalak, beharrezko diren kontrol-ekintzak egiteko udala ordezkatzeko erakundeak egindako txostenak har ditzake oinarri.

Araudi hori betetzen ez bada, arauzko dossier zigortzailea izapidetzeari ekingo zaio ofizioz.

Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena dosierra abiarazteko eta, behar izanez gero, egokitzen jotzen duen erabakia hartzeko.

Aplikatzekoak diren alorreko xedapenek ezarritakoa gorabehera, Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzak honela sailkatzen ditu arau-haustekak: arinak, larriak eta oso larriak.



> Arau-hauste arintzat joko dira, Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzaren 34.1 artikulua haritik, bertako xedapenak ez betetze hutsa, zuzeneko diru-ondoriorik ez dutenean eta kontsumitzaileei kalterik sortzen ez dietenean, baldin eta larritzat edo oso larritzat hartzen ez badira. Adibidez, saltokian baimenik ez duten pertsonak egotea, azokaren ordutegia ez betetzea, kanpoko espazioa salgai edo bestelako objektuekin okupatzea, erreklamazio-orririk ez izatea edo udal-baimena jendaurrean ez jartzea.

Arau-hauste horiek 35.1 artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

> Arau-hauste larriak jotzen dira arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea eta Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzaren 34.2 artikuluan adierazitakoak.

Arau-hauste horiek 35.2 artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

> Arau-hauste oso larritzat jotzen dira arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea, hots, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoa dela medio hala-kotzat jo delarik, eta Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzaren 34.3 artikuluan adierazitakoak.

Arau-hauste horiek 35.3 artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

VIII. HUTSEGITEAK ETA ZIGOR ERREGIMENA

Udal aginteak, zaintza eta kontrol zereginak gauzatzekoan, produktu, jarduera eta instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, eta horiei buruzko behar adina informazio eta dokumentazio eskatu saltzaileei, ebazpen honetan jasotako xedapenak, kaleko salmenta arautzeko ordenantza finkatutakoak eta jarduerari nahiz saltzen diren produktuei aplikagarri zaizkien gainerako lege-arauak betetzen direla bermatzeko. Behar diren kontrol-ekintzak entitatereen bati eskuordetzen badizkio, horrek egindako txostenak har ditzake oinarritzat Gasteizko Udalak.

Araudi hori betetzen ez bada, arauzko dossier zigortzailea izapidetzeari ekingo zaio, dela ofizioz, dela eskumena duen organoak edo interesdunen batek hala eskatzen duelarik.

Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena dosierra abiarazteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotzen duen erabakia hartzeko.

Salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantza aurreikusitako arau-hausteak zigortzeko indarrean dagoen administrazio prozedurari jarraituko zaio.



Aplikatzekoak diren alorreko xedapenek ezarritakoa gorabehera, salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren ezarritakoaren aurkako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

>Hauek dira arau-hauste arinak:

- Saltokian baimenik ez duten pertsonak egotea
- Azokaren ordutegia ez betetzea
- Kanpoko espazioan salgaiak edo beste gauza batzuk uztea
- Erreklamazio-orririk ez izatea
- Udalaren baimena jendaurrean ez erakustea
- Oinarri hauetan eta salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren xedapenak besterik gabe ez betetzea, zuzeneko diru-ondoriorik ez dutenean eta kontsumitzaileei kalterik sortzen ez dietenean, baldin eta larritzat edo oso larritzat hartzen ez badira.

Arau-hauste arinak direla eta zigor hauek ezarriko dira 1.000,00 eurorainoko isuna.

>Hauek dira arau-hauste larriak:

- Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea
- Salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren adierazitakoak

Arau-hauste larriak direla eta zigor hauek ezarriko dira 2.000,00 eurorainoko isuna.

IX. DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideak baliatu nahi dituenak —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko du.